

## Maika Etxekopar, artista

# «Antzerkia lurralde antolaketa politika bat izan daiteke»

Aitaren semeak, amaren alabak, amaren semeak, aitaren alabak... Etiketa, sailkapen, topiko eta estereotipoz josita dago mundua. Zoritzarrez. Horregatik, izan eta izaten utzi, bizi eta biziarazi.



Sustrai Colina

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

### Ez gara denak etxe berean sortzen, ez zuhaitz berean heltzen.

Kantu, dantza eta sorkuntzarako gustua jaso ditut nik. Transmittutako materialarekiko oso harreman aske eta jostaria. "Tori kantuak, tori dantzak, eta egizu nahi duzuna, josta zaitez!". Horregatik, bizian, hurbilago sentitzen naiz jostatze-ko gustua duen jendearengandik, ene ber materialarekin sortu eta hazi den anitzengandik baino. Ez naiz material hori besterik gabe kontserbatzeko eta salbatzeko logikan, ez zait burutik pasatzen ezin dela deus kanbiatu. Tradizioa galtzeko beldurrak kakinarazten nau. Izan ere, aise da inspiratuak ez garelako beti ber gauza egin eta deus ez dela kanbiatu behar erranez justifikatzea. Sortzen ari zarenean ez duzu galtzeko beldurrik, hatsarreko material horrekiko maitasunez duzu sortzen. Tradizioa ederra da, pistak ematen ditu, formak, baina ez badugu kanbiatzen izan dadila ez dugulako kanbiatu nahi, ez ez delako kanbiatu behar.

### Parisko bost urteko egonaldia kanbiatu zaitu?

Paris munduen kontzentrazioa da, kultura anitzen nahasketa. Egia da galdurik sentitzen ahal zarela, baina hori nuen xerkatzen, emanik izan zitzaidan guzti hortaz askatzea. Kultura ezberdinetako jende anitzen artean bat gehiago nintzen, eta ondorioz, zer nintzen galde-

tzen nion ene buruari. Ordura arte baino anitez gehiago esplikatu behar izan nuen euskaldun izatea zer den, folklorismo bukoliko eta terrorismoaren koktel hori baino askoz konplikatuagoa eta sakonagoa zela, eta esplikatu behar izateak distantzia eman zidan. Halaber, hemen ez nintzela Parisen baino gehiago aspertzen ohartu nintzen. Zenbaitetan, Xiberoan gauza anitz iragaiten zirela sentitzen nuen, horiekiko lotura azkarra nuela, eta beste zenbaitetan ez zela deus gertatzen baina horrek ere on egiten zuela. Parisen konturatu naiz zenbat gauza gertatzen den hemen. Han ohartu naiz hemen bezainbat bizi atzematen ahal nuen gune bat xerkatzen nuelako hartu nuela lur Parisen. Alabaina, beti izan dut argi ez nuela han bizi nahi. Uros nintzen denbora baliatzen nuelako Parisez gozatzeko, deskubritzeko, hirian galtzeko, baina jendea lan erritmo pisu batean alienatua ikusten nuenean... Sentimenduz eta bizi kalitatez, zerbait egitekotan hemen da ene lekua.

### Zer da artistak egin behar duena?

Jendeak maite duena ez, jendeak maitatu dezakeena proposatzen duela entzun berri diot Pierre Chancel artistari irratian. Zer forma eman intimoki maite duzula segur zaren horri publikoarengana heltzeko? Eni, publikoak espero duena ez, publikoak espero duenarekin lotura

duen, baina beste forma edo ikuspuntu bat irekitzen duena eskaintzea gustatzen zait. Amaren Alabak-ekin egiten genuen eta antzerkian ber gauza. Adibidez, usu Iparraldean jendea irri egitera joaten da antzerkira, eta eszenan iragaiten dena irrigarria ez izanik ere, jendeak irri egiten du. Horregatik ene beste bi lagunekin gure obra prestatzen hasten garelarik, publikoari negar egiteko parada ere eskaini behar zaiola aipatzen diet, ez min egiteko, korapiloak askatze-ko baizik. Publikoa harritzea eta xarmatzea da artistaren lana, espero ez duena eta gustatzen ahal zaiona proposatzea.

### Muntatu duzuen Ederlezi pastoralak bezala?

*Ederlezi* edo *Joxemiel Bidador* pastoralekin "zinezko pastoral bat dea?" galdetzen du jendeak, eta ni ontsa futitzen naiz koadroaz, etiketaz, eta debate hortaz. Mendez mende heldu zaigun istorioak kontatzeko molde hori bakoitzak bere gisara deklinatu ahal izatea interesatzen zait. Pastoralak badu gibelera pusatzen nauen alde geldi, geldo, pisu, mugigaitza, baina aldi berean, izugarri maite dut funtsean duena. Horregatik zait eder funts hori bakoitzak bere maneran interpretatzea. *Ederlezi* konprenitu dut biziki formala zela pastoralak, aktoreek ez dutela hitzetan sartzeko beharrik. Kantari ona bazara eta ibiltzen presen-



## Maika Etxekopar

1987, Gotaine-Irabarne

Musikari, kantari eta antzerkilaria. Amaren Alabak taldeko kide, *Gartxot* pelikulako Xuneren ahotsa, *Ederlezi* pastoreko muntatzaile eta parte-hartzaile, Le Petit Théâtre de Pain, Bonbon noir et crotte de bique, eta Huts Teatroa konpainietako partaide... Azken hilabeteetan, *Etxekoak* antzezlanarekin dabil Euskal Herrian barna.

tzia baduzu, berdin-berdin muntatzen ahal duzu Hitler, Xalbador edo Monzon gorai patzen duen pastorala. Antzerkian ezin duzu erreplika eman muinean sartu gabe, pastorean bai. Erraten duzunarekin ados zaren ala ez pentsatu gabe egiten ahal duzu zerbait biziki ederra. *Ederlezin*, emanaldi egunean konprenitu genuen erraten genuena. Publikoaren erreakzioari esker ohartu gara historia ofizialarekiko istorio aski subertsiboa ari ginela kontatzen.

### Subertsiboa da euskara aspaldiko kinka larrienean denean sortzea pastoralean loraldi hau?

Gauza ederrak, dekoraziozkoak, dira kultura baten azken arrastoak. Pastoralak badu, etheen euskarazko izenekin eta lehengo tresnen marrazkiekin batera, hemengo dekorazio handiena bilakatze-ko arriskua. Ikusiko. Oraingoz pastoralak funtzio sozial oso azkarra du. Azal hori mantendu nahia behar genuke baliatu. Herri batek pastorala beregain hartzeak kanbiatzen ahal du herria, kanbiatzen ahal du herriko jendea, maskarada muntatzeko gogoia eman dezake, eta forma horren emateko harrotasunak euskara ikastera bultzatu. Euskararen mundurako sartze posiblea da kultura. Pastoral edo maskarada emateko beti beharko da euskara. Batere euskaldunik bilduko ez denean ez da gehiago pastoralik izanen. Horrek atxikitzen du ontzi handi bat, ez dena batere bete, baina arrabetetzen ahal dena. Ontziaren maitasunak piztu dezake betetzen hasteko gogoia.

### Jendartean hiru ontzi ezberdin dira musika, kantua eta antzerkia. Zuk denak dituzu ontzi berean.

Hemengo arte munduan, pastoraletik eta maskaradatik hasita, lotura estua dute hiruek. Antzerkian baliatzen ditut katurako ditudan armak baina ber denboran antzerkian kantuarekin landutakoetatik askatzen ikasi behar dut. Zuberotarrak kantant estatiakoak gara, duinak oso, eta antzerkian gorputza libratu behar da. Kantuak ez dit bortxaz antzerkiko lana aisatzen. Pentsa, kantuan ariz ez dut nehoiz bozik urratu, antzerkian bai. Eszenan naturaltasun aire batekin mugitzeko oso teknika artifizialak erabiltzen dira. Ez du deus ikustekorik eguneroko bizian dugun mintzatzeko edo mugitzeko moldearekin. Aktore batek bere baitako konplexuta-



ANBOTO



ARTEDRAMA

*“Antzerkian baliatzen ditut katurako ditudan armak baina ber denboran antzerkian kantuarekin landutakoetatik askatzen ikasi behar dut”.*

sun guztia behar du eskuragarri, bere irudimena jalgiazteko gaitasuna izan, barne-zentsura anitzak laxatzen jakin, beti ontsa eta eder agertzeko nahiaren gainetik egon... Bizi oso bateko lana da.

### Eta, *Etxekoak*-en bezala, lana zure biziari buruzkoa denean?

Errealitatearen eta fikzioaren arteko tartea ttikia denean ez da erraza, baina fikzionatzea bera lehen urrats bat da distantzia hartu eta barnean duzunarekin nola jostatzen ahal zaren ikasteko. Nire pertsonaiak nik bezala beste herrialde bateko bikotekidea du, baina nik antzezteko baliatzen ditudanak oro gure baitan ditugunak dira. Maitasuna, injustiziaren aitzinean oldartzea... hortik edaten dut nire istorio pertsonaletik baino gehiago.

Beste bi lagunekin muntatutako antzerkian, aldiz, emazte izateari buruz gogoe-tatu dugu, lehengoan askatasunik eza eta egungoen ustezko askatasuna konparatuz. Gure barne-barneko korapiloa zen eta emazte ezberdinen istorioen ilkitzea aitzina jotzeko modu bat izan da. Nik ezin dut emaztearen gaia puntualki landu. Enea betidanik eta betirako da. Barne-barnetik hunkitzen nautelako heltzen diet emazteok ditugun eskapurik gabeko galderei. Ene lagunaren familia bisitatzera Aljeriara joan eta hango emazteak ikusten ditudanean, kontent naiz sortu naizen lekuan sorturik, baina hala ere, ber galderak ditugu. Horiek jorratu nahi ditut, horiek partekatu, biziaren funtsezko problemak, biziaren parte direnak eta bizia interesgarri egiten dutenak.

“Pastoralak badu, etheen euskarazko izenekin eta lehengo tresnen marrazkiekin batera, hemengo dekorazio handiena bilakatzeko arriskua”



### Euskal antzerki nazionala egiteak ere bihurtzen du bizia interesgarri?

Uhinaren gainean sartu naiz, baina izugarri kontent naiz horren bultzatzaileak hurbiletik lanean ikusirik. Gaur da eguna haiek pausatzen dituzten galderak pausatzerantz heltzen naizena. Orain arte ez nintzen batere kezka horietan. Amaren Alabak-ekin Euskal Herriaren itzulia egin dugu elkarre munduaren bidez, ez profesionalki. Ez nuen erakunde eta antolakunde beharrik ikusten, enetako hori zen modeloa. Orain ari naiz ohar-tzen antzerki lanak denbora galdegiten duela, sosa behar dela, eta batez ere, jendartean gauzak aitzinarazteko funtzio artistikoa dela motorra. Izugarri ederra zait Euskal Herri osoan obra bera emanaz jendearengana heltzea, Zuberoan eta Araban mami bera partekatzea. Lurralde antolaketa politika bat izan daiteke antzerkia, Herri bat sortu dezake, ez Herri instituzional bat baina bai irudi, hausnarketa eta erreferentzia berak dituen multzo kohesionatua. Herriz herrikoa zena Euskal Herriaren heinean da orain. Hori da Zuberoan behar duguna. Hemen jendeak bere herriarekiko atxikimen-

du biziki azkarra du, anitzek ez dute herriaz haraindiko antolamenduen beharrik ikusten. Hola mintzo direnak, alta, ez dira ohar-tzen lehen mila biztanleko herria zena ehuneko dela egun, lehen 500 euskalduneko herriak bost baizik ez dituela orain, 50 etxalde zituenari bakarra gelditzen zaiola... Hemengo gazteek herriarekiko lotura sakona dute, baina zenbat dira herri bakoitzean? Gaur egun, ene herria ez da ez Gotaine ez Atharratze, gutxienez Xiberoa da, eta ari naiz ikasten Euskal Herri osoa izan daitekeela, partekatzeak gaituela herri egiten.

### Partekatu nahia zen Amaren Alabak?

Amaren Alabak-en sentitutako plazer, xantza eta libertate handiak anitz handiarazi gaitu. Euskal Herri osoan ibili gara, jendearekin bestan, gomit, sekula kantaldi baten atzemateko eri ttipia altxatu gabe. Sei lagun ginen, gazte-gazteak, kurritzeko denboraz eta egarriz, aitamek “zoazte kantatzera!” erraten ziguten... Zer gehiago behar genuen? Ez dut sekula lan bat bezala bizi izan, “has gaitzen jostatzen!” pentsatzen nuen beti. Aldi berean, etiketa bat genuela sentitzen nuen,

“neskak Zuberoan kantan hasten...”, baina zer nahi duzu, neskak izanik ez genuen gizon koroa egiten ahal! Gainera, guretzat ez zen gaitz berritzea. Nola eman forma bisuala ingurutik emana zitzaigun kantu eta material andanari? Nola hedatu ondare hori? Galdera horiekin urratu dugu bidea, formak berrituz eta mamian barnago joanez anitzez gehiago partekatzen zela konbentziturik.

### “Xiberoan ere fandango”, beraz?

Nik badut kurritu beharra, baina Xiberoara sartzean gehien maite dudana oinak lurrean pausatzea da, eta ez gudroinean edo betoiairean gainean. Adibidez, laborantzarekiko miresmen bat dut, fantasia bat, funtsezkoa iruditzen zait. Ene idealean, lehenik oinarrizko beharrei arrapostua eman behar zaie eta hortik landako oro bonus bat baizik ez da. Ez dakit bizi daitekeen elikatzearen funtzio horretatik kanpo, besteei betearaziz eta sosarekin erosiz. Parisen obsesio bat zen hori enetako, han ez da lurrik, ez da belarrik, dena gudroina, dena betoia. Paristik sartzean ohartu nintzen nik maite ditudan gauza ederre-



## Of the record: Formakuntza

Formakuntza eskas duela aitortu digu Maikak, hasiberria dela, bere burua armatuago sentitzeko beharra duela, ez dela beti aski egitez ikastea. Aura berezia duela da aitortzen ez duena, agertzea aski duela zerbait berezia transmititzeko. Halatsu azaldu da Atharatzeko plazako hitzordura. Egin dugu elkarriketa, hartu ditugu argazkiak, eta Mixel Etxekoparri (Maikaren aitari) aspaldi entzundakoa gogoan egin dut etxerakoa: "Xiberotarrak ez gara raperoak baino fosilduagoak!" egiten zuen aldarri. Ez da Maika formakuntza eskas duen bakarra.

nak bizimodu horretatik sortuak direla. Kantatzeko beharrak, artzainen basa aireek... hemen present diren baratzearekin, kabalekin, sasoiari sasoi bizi erritmoarekin dute lotura. Ni beti ari

naiz kurritzen, ez naiz sekula etxean, ez naiz kabalarik ukaiteko gai, baina kostatzen zait hori onartzea. Orain hasi naiz onartzen egiten dudanak ere balio duela, baduela funtzio bat. Horregatik, ene

bizia desbideratzen dudanean ez da lanbide finko eta egonkorra ukaiteko. Hori oso behar berria da. Nahiago dut ene bidea lurrarekiko eta biziarekiko lotura azkartzeko desbideratu. ■

# KUTXA EKO GUNEKO HAUR PARKEA



**ZATOZ NATURAREKIN JOLASTU ETA IKASTERA!**  
Familiarentzat kafetegia dugu

[www.ekogunea.eus](http://www.ekogunea.eus)



**P**  
Doako aparkalekua

Prezioa  
**6€**

Eguberrian irekita

urte guztiko **ORDUTEGIA**

Ostirala 16.00-20.00  
Asteburua 11.30-20.00

Abendua

21	22	23	26
27	28	29	30

Urtarrila

2	3	4	7
8	9	10	

0-12 urte bitarteko haurrentzat





**kutxa FUNDAZIOA**  
[www.ekogunea.eus](http://www.ekogunea.eus)